



Erbesteko tibetarrak

Elurrezko lehoiaren borroka isila

Txina 2008ko Joko Olinpiarretan buru-belarri dabilen bitartean, kilometro askora, India eta Txina banatzen dituen Himalaia mendikatearen bestaldean, ehunka fraide eta moja budistek Asiako tigrearen aurkako borroka isil eta baketsuarekin tinko jarraitzen dute, esperantzara kondenatuta.

Argazkiak eta testua:

AMAIA SAGASTI

PATHANKOT-EKO TREN GELTOKIA jendez gainezka dago, Indiako beste edozein txokoren antzera. Jende ugari gerturatu zaigu, taxia, *rickschawa* eta beste mila gauza eskaintzeko asmoz. Azkenean, 850 errupiarren truke Mc Leod Gang herrira eramango gaituen gidaria lortu dugu; bertan dago Tibeteko Gobernuak erbestean duen egoitza. Eta han bizi da Tenzin Gyatso, hamalagarren Dalai Lama.

Mc Leod Ganj basoz inguraturiko tontor batean dago, autobus geltokia dagoen plaza-tik irteten diren hiru kalek osatzen dute eta turistentzako dendaz, mojaz, fraidez eta hippyz beteta dago. Herriaren erdian, Tibeteko okupazioa sufritzen ari direnen omenez erbesteratuek eraikitako tenplu koloretsua ikus daiteke. Tunika gorri eta laranja soinean duten hiru monjek tenpluari bira eman diote

eta eskuineko eskuarekin otoitz errotatxoak eragin dituzte, mantrak xuxurlatuz.

130.000 iheslari

Gaur egun, 130.000 iheslari tibetar inguru bizi dira Indian; hauetariko asko Dharamsala, Mc Leod Ganj eta inguruko hainbat herritan. 1960an, Jawaharlal Nehru Indiako presidente zenak babesa eskaini zien bertara ihes egin behar izan zuten Dalai Lama eta bere jarraitzaileei. Presidenteak Himachal Pradesh eskualdeko Dharamsala herria eskaini zien, tibetarrek erbesteko gobernua bertan jarri zezaten. Ordu-tik, milaka iheslari tibetar joan dira Mc Leod Ganjera, eta urteen poderioz, monasterioak, eskolak eta tenpluak eraiki dituzte. Herri hau "Lhasa txikia" gisa ezagutzen da tibetarren artean eta turismoak garrantzi handia hartu du



bertan. Azken urteotan, hainbat hotel eta jate-txe eraiki dituzte eta yoga, reiki edo sukaldaritza ikastaroak eskaintzen dira bisitarientzako.

Iheslarien %10a monasterioetan bizi da, sorterriaren memoriaren alde lanean. Monje eta moja hauen lanari esker, Tibeteko idazkerak, fedeak, ohiturek, kondairek eta borrokalaria nomaden istorioek bizirik diraute. Tenzin Gyatso hamalagarren Dalai Lamak euren herrialdearen arima babesteko eskatu die erbestean bizi diren tibetarrei, itzultzen direnean Tibeteko historiak bizirik jarrai dezan.

Hurrengo urteko abuztuan Pekinen ospatuko diren Joko Olinpiarrek arrazoi berri bat eskaini diote tibetarren borrokari. Hala, iragan abuztuan herrialde boteretsua eta modernoa dela erakutsi nahian Jokoak iragartzeko txinatarrek mundu guztiko komunikabideen aurrean antolatutako festa ikaragarrian, hainbat ekintzailek Tibeteko independentzia eskatu zuten: pankarta erraldoia zintzilikatu zuten Txinako Harresian, “Mundu bat, amets bat, Tibet Askea 2008” leloarekin. Txinako polizia ekintza horretan parte hartu zuten sei lagun atxilotu zituen.

Ezkerreko orriko eta goiko irudietan, moja eta monje tibetarrek Mc Leod Ganjen, euren herriaren aldeko manifestazio baketsuan.

Mc Leod Ganjen berriz, modu baketsuan egin zuten borroka. Inguruko monasterioetako hainbat moja eta monje, kandela eskuan, Tibeteko askatasunaren alde errezoan aritu ziren. Gauaren iluntasunak herria pixkanaka estaltzen zuen heinean, tibetarren errezo lasaiak errezo bakar bihurtu ziren eta geroz eta indar handiagoa hartu zuten. Kaleetan paseatzen zebiltzan turista askok ere tibetarrekin bat egin zuten. Euririk, gainera, ez zuen kandelak itzaltzerik lortu.

Dolma Dhonlup-en bidaiak luzea

Urtean 3.000 lagunek zeharkatzen dute Tibeteko muga. Txinaren okupazioaz geroztik, Pekinen presiotik ihesi, Nepal eta Indiara egiten dute ihes muga igarotzea lortzen duten tibetarrek. India iparraldeko Dharamsala herria iheslarien etxe bilakatu da. Hara iristea, ordea, abentura arriskutsua da, muga Txinako polizia jositik egoten baita.

Dolma Dhonlup, 30 urteko emakume tibetarra, Dharamsalan bizi da egun, senarrarekin, baina Lhasan du familia, Tibeteko hiriburuan. Txinatarrek hura indarrez hartu zutenean, bere

Dalai Lama erbestean eta bere ondorengo desagertuta

Tibetarren ustearen arabera, Dalai Lama (“Jakinduriaren ozeanoa” tibetarrez) Budaren berrargitzea da. Hamalagarrena, Tenzin Gyatso, Indian bizi da 1959. urteaz geroztik. Ikaslea zela, 1949. urtean, orduan sortutako Txinako Alderdi Komunistak Tibeteko hiriburua indarrez hartu zuen. Ordutik, milioi bat tibetar baino gehiago erail ditu eta Tibeteko erakunde erlijiosoen %90arekin amaitu du. 1959an, Tenzin Gyatsok erabaki gogorra hartu zuen: bere herrialdea erbestera eramatea. Jarraitzaile gutxi batzuren laguntzarekin, Himalaia mendikatea zeharkatu zuen aste luzez. Dagoeneko, 250.000 tibetarrek Dalai Lamaren pausoak jarraitu dituzte eta Dharamsala, Darjeeling eta India iparraldeko beste hainbat herrialdetan bizi dira. Gandhiri indiarrekin gertatu zitzaionaren antzera, Tenzin Gyatsoren erabakiak aurkariak izan zituen. 1989an, Bakearen Nobel Saria



lortu zuen, bere herriaren askatasunaren alde egindako lan baketsuagatik.

Txinako alderdi komunistako kideek Tibeteko agintari espiritualak ondorengo izan dezan saihestu nahi dute. Debekua irailan jarri da martxan, eta horren bidez, Dalai Lamak ezin izango du ondorengorik hautatu, Txinaren politikaren interesen aurka doala argudiatuz. 1995ean, Dalai Lamak Lhazirong-en (Tibet) sendi txiro batean jaiotako haur batengan Panchén Lama berriaren berrargitzea ikusi zuen. Berria ezagutu ostean, polizia txinatarrek umea zegoen monasterioa hartu zuten. Egun hartatik, inork ez daki haurra non dagoen. Munduko preso politiko gazteena bilakatu da. Txinako Gobernuak haurra bahitu zutenetik, Dalai Lama bizi den etxearen aurreko zuhaitzean zapi hori bat jartzen dute ostiralero –ikus argazkia–.



Ezker eskuin, Mc Leod Ganj herria, bertako saltzaile bat eta Dolma Dhonlup, tibetar errefuxiatua.

familiaren bizimodua asko gogortu zen eta familia-kide ugari txinatarren kartzeletan bukatu zuten. “Gure egoera oso gogorra da –dio–. Kartzeletan torturatuak eta erailak izan dira nire ezagun asko, Tibet askearen alde borrokan aritzeagatik”.

Dhonlupek egoera hartatik ihes egitea erabaki zuen eta horretarako, beste sei lagunekin Himalaia mendikatea zeharkatu zuen. Hogeita hamar egunen ostean, Nepaleko hiriburura heltzea lortu zuten. “Oso bidaia gogorra izan zen. Ez genuen Himalaiako hotzari aurre egiteko arropa egokirik, eta jaki gutxi genuen. Ia hilabete egin genuen elurretan, Nepaleko bidean. Elurrean islatzen zen eguzkiak itsutu egiten gintuen, eta altura horretako hotzak gure muskuluei mugitzea galarazten zien. Barnean generaman indarra izan zen Nepalera heltzen lagundu ziguna”.

Katmandun, errefuxiatu tibetarren alde lan egiten duen erakunde baten laguntzaz errefuxiatu egoera onartzen dioten paperak lortu zituen Dhonlupek. Erakunde

horretan, Dharamsalara heltzeko nahikoa diru, janari eta arropa ere eman zieten. “Dharamsalara iritsi nintzenean, ez nuen inor ezagutzen. Ez nintzen indiarrez hitz bakar bat egiteko gai, eta bertako ohiturak arrotzak ziren niretzat. Askok kostatu zitzaidan nire bizitza berregitea. Orduetik sei urte pasa dira eta nire egoera hobea da, baina beste askok ez dute izan nik izan dudana zortetik”.

Giza eskubideen aldeko hainbat erakundek gogor kritikatu dute Txinako Gobernuak. Tibetarren aurka ez ezik, gobernuarekin bat ez datorren edozein txinatarren aurka egitea egotzi diote, Tiananmen-en hilketarekin gertatu zena kasu. Urtebete baino gutxiago falta da Joko Olinpiarretarako eta giza eskubideen aldeko erakundeek data hori baliatu dute euren salaketek munduaren aurrean oihartzun handiagoa izan dezaten. Bitartean, erbestean bizi diren milaka tibetarrek euren borroka isilarekin jarraitzen dute, ia mende erdiz jasan behar izan duten bidegabekeriaren aurka ahotsa altxatuz. ■

Okupazioa

Txinako armada 1950ean sartu zen Tibetean, eta nahiz eta Dalai Lamak bakearen eta elkarrizketaren aldeko ahalegina egin, Txinak tibetarren eta euren kulturaren zapalkuntzari ekin zion. Ondorioz, 1956an tibetarrek txinatarren aurkako iraultza hasi zuten. 1959an, iraultza Lhasa Tibeteko hiriburura heldu zen, baina tibetarrek ezin izan zuten askorik egin txinatarren arma eta soldaduen aurka. 1979an Mao hil zenean, tibetarrek esperantzarako aukera ikusi zuten, baina gauzek ez dute hobera egin. Gaur egun, txinatarrek Tibet deitzen duten eremuak Tibet historikoko lurraldearen erdia baino gutxiago biltzen du. Izan ere, Tibet indarrez hartzerakoan, hainbat eskualde Txinako lurralde batzuen artean banatu zituzten.



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea